

# BANAIZ vs. JON JAUREGI

“hazten joan ahala ahazten...  
sormen darwinista vs. erretratua”



## SORMEN DARWINISTA Vs. ERRETRATUA

Nere kasuan, pintura, oso ekintza terapeutikoa da. Izaeraz beldurtia (oso oso prudentea) txikitatik, edozein erabaki garrantzitsu hartzeak bortizki estutzen nau. Auto-exijentzia. Lehiakortasuna (sistema Kapitalistaren DOGMA ITOGARRI omnipresentea...). Huts egiteari beldurra, azken finean... otso gehiegi baso zabalean, Txano-gorritxu izateko...

Nere lanbideak (gerentzia) eta aitatasunak, erantzunkizun handia exijitzen didate uneoro, eta egunerokotasun itogarri horrek mentalki lehortu egiten nauenez, barruak askarazteko jardura baten BEHARRA dut arima ekilibratzeko, ezinbestean.

ARTEA erreminta bikaina da horretarako (Frida Kahlo). Baina ez edozein modutara. Adibidez, erretratuak egitea ez da batere askatzailea... emaitza jakin baten bidean (antzekotasuna, errealismoa, etab.), lana eta erantzunkizuna dira gako nagusiak. Besteen oniritzia bilatzea. Eta hori da hain justu alde batera utzi nahi genuena, arimaren askatasun bidean...

Beraz, pinturan, askatasun beharrezko horren bilaketan, ABSTRAKZIOA-ren munduan barneratu izana, opari bat izan da nire zentzuentzat. Besteen aprobazioari bizkarra eman eta ahots propioa soilik entzunez sortzea.

Helburua? Beldurra baztertu eta askatasuna bilatzea. Bilatu baino gehiago (utopia), askatasuna TRANSMITITZEA.

Gehienok sentitu dugu ASKATASUNA haurtzaroan. Askatasuna, erantzunkizunik eza bezala ulertuta, esan nahi dut. Sentsazio gozo hori... hazten joan ahala ahazten doakiguna, ezinbestean.

ARTEA erresistentzia da, zentzu horretan. Hazkuntza eta hezkuntzaren bide oker hoiei aktiboki aurre egitea. Barruan dugun haur askearen garrasia ozen askatzea. Negarra.

Horretarako, metodo propio bat sortu dut: SORMEN DARWINISTA. Metodo horretan, ez pentsatzea da helburua. Erabakiak buruarekin ez, baizik eta intuizioari soilik jarraituz hartzea. Bihotzari entzu-

nez. Barruko haurrari hitz egiten utziz. Aske izatea obraren sorreran, sentsazio hori bera margolanean islatu dadin: trazu askeetan, kaosean, kolore bizietan etab.

Erantzunkizunik gabe margotzea. Artean, akatsek ondorioz ez dutela sentitzea eta praktikan jartzea. Eroriz gero, sarea dagoela kolpea goxatze... Es más! Ez dagoela inongo erorketarik!! Nondik erori baina!! Hori da benetako ARTEA niretzat. Bere txikitasun horretan handi. Gauzei garrantzia kendu horretan esentzial. Bere huts intelektual horretan jakinduria iturri. Bere utzikeria horretan senda-belar. YING-YANG...

Beraz, ez da objektu edo ideia konkretu bat margotu nahi direnak... ez da figuratiboa (ezaguna) den zerbait. Ez da filosofikoa sikiera... Ez politikoa, ez soziala... benetan margotzen ari naizena, forma jakinik ez duen SENTSazio bat da: beldur eza, BALENTRIA, ASKATASUNA.

Ez da ZER margotu, baizik eta ZERGATIK margotu. Ez da ZER sortu, baizik eta ZERGATIK sortu...

Hor dago gakoa... ZERK garamatza helburu jakinik ez duen (erabilgarritasunik ez duena) zerbait sortzera? Zein da sortzera behartzen zaituen motorra (nahiz eta biziraupenerako beharrezkoa ez izan)? Zentzu praktikoa erabilgarritasunik ez duen zerbait zertarako eta zergatik sortu? Zerk ematen dizu pultsio geldiezin eta indartsu hori? Zergatik margotzen zuten lehen gizakiek kobazuloetan, nahiz eta baldintza hain basikoetan bizi?

Eta, ez da erreza galdera horiek planteatzeko beharrezko dugun biluztasuna lortzea. Motorra etengabe erregaiak hornitzea. Bide luzea baita des-ikastearena, askatzearena, hegan egitearena... izan ginen haur askearen sentsazio errepika ezin horien defentsan borrokatzea... lehiakortasun bortitzaren gizarte itogarri honen erdian...

Sortu!!!

BANAIZ 2022

## CREATIVIDAD DARWINISTA Vs. RETRATO

Pintar puede ser un acto terapéutico.

Tímido por naturaleza (muy, muy prudente y cauteloso) desde la infancia, tomar cualquier decisión importante me sacude con violencia. Autoexigencia. Competición quizá... (DOGMA omnipresente y asfixiante del Sistema Capitalista...). MIEDO al fracaso...

Resumiendo: fragilidad, en un mundo que no acepta fisuras...

Mi profesión (Gerencia) y la paternidad (2 hijas) demandan muchísima responsabilidad. 24/7. Este exigente día a día secuestra mi mente y NECESITO una actividad que libere mi espíritu. He de equilibrar mi alma, inevitablemente.

El ARTE es una solución excelente para afrontar estas carencias/necesidades (Frida Kahlo). Aunque todo depende... Por ejemplo, hacer retratos no es nada liberador... en el camino hacia un determinado resultado (semejanza, realismo, etc.), el trabajo y la responsabilidad son las claves principales de lo que andamos buscando. Hay un objetivo fijado de antemano. Un fin. La aprobación de los demás... Un resultado consensuado, ajustado a una verdad comparable, juzgable y valorable por criterios medibles (tiempo de trabajo, dinero, técnica, etc.). Y eso es exactamente lo que queríamos evitar, en ese camino tan necesario hacia la libertad del alma, la redención del espíritu ...

Por eso, en la búsqueda de esa necesaria libertad, el haber descubierto el mundo de lo ABSTRACTO ha sido un regalo para mis sentidos. Crear dando la espalda a la aprobación de los demás. Escuchando solo tu propia voz. Tu propia intuición.

¿Objetivo? Rechazar el miedo y buscar la libertad. Más que buscarla (utopia), TRANSMITIR libertad.

La mayoría de nosotros hemos sentido LIBERTAD en la infancia. Libertad entendida como la ausencia de responsabilidad. Esa dulce sensación... que inevitablemente olvidamos a medida que vamos creciendo en edad.



El ARTE es resistencia en ese sentido. Enfrentar activamente los torcidos y manidos caminos del crecimiento (economía) y la educación del último lustro. ARTE es liberar a gritos al niño que llevamos todos dentro. LLORAR para honrar a ese ser tan puro y libre que fuimos.

Para conseguirlo he creado un método propio a la hora de pintar/crear: lo he llamado CREATIVIDAD DARWINISTA. En este método el objetivo es: NO PENSAR. Tomar decisiones no con la mente sino solo siguiendo la INTUICIÓN. Escuchando al corazón, a las entrañas mismas. Dejar que el niño interior hable sin ataduras. Ser libre en la creación de la obra, para que en ésta se refleje ese sentimiento que anhelamos: trazo libre, caos, colores vivos, etc.

El objetivo es pintar sin responsabilidad. Sentir que los errores no tienen consecuencias de ningún tipo y ponerlos en práctica. Si te caes, hay una red para amortiguar el golpe... ¡Es más! ¡¡Sentir realmente que no hay consecuencias de ningún tipo!! ¿De dónde vas a caer, de dónde (!!), si por convicción el objetivo es no tener objetivos?!?!? Eso es verdadero ARTE para mí. Grande en su sencillez de planteamiento. Capaz de quitarle importancia a todo para centrarse en lo esencial. Un terrible fracaso intelectual que a su vez es fuente de sabiduría. Activar la dejadez para que actúe como hierba medicinal. YING YANG...

Por lo tanto, no es un objeto o una idea concreta lo que se quiere pintar... no es algo que sea figurativo (recon-

ocible). No es ni siquiera una actividad filosófica... Ni política, ni social... lo que realmente estoy pintando es una SENSACIÓN que no tiene una forma particular ni concreta: se intenta pintar la valentía, el VALOR, la LIBERTAD, pero sin pintarla... es hacer de médium entre estas emociones y los materiales para crear un objeto ABSTRACTO impregnado de todas estas sensaciones.


No es QUÉ pintar, sino POR QUÉ pintar.  
No es QUÉ fue creado, sino POR QUÉ fue creado...



Aquí la clave... ¿QUÉ nos lleva a crear algo que no tiene un propósito particular (que no tiene utilidad práctica)?, ¿Cuál es la fuerza que te impulsa a crear (incluso si no es necesario para sobrevivir)?, ¿Qué te da ese impulso imparable y poderoso?, ¿Por qué los primeros humanos pintaban en cuevas, a pesar de que vivían en condiciones tan básicas?


No es fácil conseguir la desnudez necesaria para auto plantearse estas cuestiones. Porque es un largo camino el de DESAPRENDER, el de liberarse de ataduras físicas e ideológicas, el de volar libre... luchar en defensa de esos irrepetibles sentimientos de cuando siendo niños nos sentimos libres... Es difícil revivir la memoria de ese SER que fuimos en medio de esta asfixiante sociedad de violenta competencia...


¡¡¡Sigamos creando sin MIEDO!!!

BANAIZ 2022









**Juan de Lizarazu aretoa**  
**URRETXU**

2022ko irailaren 30etik urriaren 16ra • Del 30 de septiembre al 16 de octubre de 2022

Artistaren presentzia: urriak 7 ostirala – 19:00 • Presencia del artista: 7 de octubre viernes – 19:00

Ordutegia · Horario:

Asteartetik igandera · De martes a domingo: 17:30 - 20:30



**Urretxu**ko udala



Labeaga kalea 27  
tel. 943 038 088